




Ileroko aldizkingi edergariduna

Aita Kaputxinoak zuzendua

—: VI Urtea || 1924'ko Azaroa || 71 Zenbakia || :—

ANIMEN IĻABETEA



UAN deunak Apokalipsis liburuan zearo esaten digu: zeruan ez dela ezer zikindurik sartuko. (Apoc. XXI-27)

Baño ta ğnor aterako da luřeko lokazti izugarietatik eřuen, uts edo pekatuen baten pitsak ikutu (ukitu) gabe? Nor, ğluřeko gure inguruan dabilten autsak bere soñeko-tan batere artu gabe?

Nekez, bai nekez, ateratzen dala luřetik adiñeko iñor utsik ezer gabe edo bere luřeko uts guzietatik ondo garbiturik eta zor guziak txaro (osotara) ordaindurik.

ğZer gertatzen da, ba? Betiko galduak izaten al dira? — Ez iñolaz ere. Luřeko utsa txikiar naiko damutu bage edo uts aundien zofak atera gabe edo batzuen eta besteen ordain-sari guzia kiřo egin gabe ateratzen dan anima Garbitokira (purgatoriora) dijoa.

Garbitokiko miñak

Garbitokiko animen min, naigabe edo eraman beafak gogořak dira. Ba-ño guziak luřeko beren utsegiñen ariora. Bakoitzarentzat bere zofak ordain-du arterañokoak.

Pekatuak zikindu egiten du beti anima. Ura zenbat eta astunagoa, ani-maren ango eraman beafa ere arebara. Egiz esaten dizut—dio Jesus'ek—etзера andik aterako azkeneko laukoa ordaindu arte.» (Mat. V-26). Eta Ja-

kinstuak: «Azkañenai min biziagoak ekiten die (Sap. VI-9)»

Jakintsu batek esan du: Pekatu ariñean (txikian) lufekoen maitetasunari anima geiegi uferatzeaz (urbiltzeaz) pixkat beztu egiten da. Pekatu ariña egitean Jaungoikoaren maitetasun sutik anima pixkat baztartuz oztu egiten da. Eta pekatu ariñaren bi gaiztakeri auei, bi naigabe nagusik erantzuten diote oso zuzen garbitokian (purgatorioan): *zentzuetako miñak* eta *gabezko miñak*.

Zentzuetako miña deitzen zaio gorputzean zitudan zentzuetan animak izaten duan min, oñaze, atsekabe ta gafaztasunari.

Nola izan dezakean animak gorputzik gabe, gorputzeko zentzuei dagoen miña, ezin adirazi ta esan degu. Su gorputzezkoak anima nola mindu lezakean ezin aditu dezakegu garbi.

Nola ez dakit—dio Agustin santuak - baño bai dakitela, afigafizko siñistu ezin litezken bidez, eta ala ere oso egiazkoaz, gorputzezko suak gorputz gabeko gogoak mintzen dituala.

Zentzuetako min ori ikaragafia dala efaz konturetu gaitezkelara nago ontaz:

Miña zentzu guzietan ezta berdiña; zenbat eta zentzu minberagoa ordun eta min biziagoa; gorputzeko zentzuak eta kordea goltzerañoko miña animari datorkionean, ofek gorputza il-antza uzten du ta suak efe, kixkali ta gorputza auts biurtu nai duaneko, anima oñazetik eta gorputzetik igesi dijoa. Baño zentzu guziei befen minberatasuna ematen dien anima ori su onek afapatzean, inguratzean, artzean eta goritzean zer nolako oñazeak bereak? Nola ditekean suak anima mindutzea adirazten du onek.

Garbitokiko bigañen miña da, *gabezko miña*. Jaungoikoaz ezin gozatuak ematen dien atsekabea. Au zentzuetakoa baño ere min biziagoa da. Jaungoikoa da beren atsegiña, beren aita maite baño maiteagoa, beren aberastasun ifikiten dauzkena, beren ondasun ondargabe bear luketena, egafiz amofatzen dagoanak ura bezala nai luketena ta Arek ez ematen beraganako biderik; eta ori beren efuz, oben edo kulpez dala ba-dakite; eta noiz arte bearko duten onela ere ez. ¡Au da, naigabe neufigabea!

Anima aien alde ezer ba-aldezakegu?


Bai ta asko. Aiek bear duten laguntza eman dezaiegun jafi du Elizak Animen ilabetea. Elizak erakusten digu bere ilen aldezko otoitz mezako ta Eliz-otoitzetakoaz guk zer egin. Elizaren seme batzuek besteen zoñaz erantzun dezakegu; garbitokiko animen zoñak gur ordaindu dezazkegu.

¿Nola? Asko aldetara. Gau ta egun egiten degun guziaz, esan liteke. Gure Jauna artzeaz, meza eskeintzeaz edo entzuteaz, otoitzen baten bidez, gure limosnaz, gure egite (obra) onaz, gure lanaz, nekeaz, maigabeaz, gosez, egafiz jainbat aldetara! Anima aietaz oroitzea ta aien alde ta onetan eskeintzea, oña beafezkoa, ta ilabete ontan batez ere.

¡Zenbat anima egazi dezazketzun egun bakoitzean zerura!

Ar'tar A.





Otoitz egin zagun Asis'tar Prantzisko santuarekin ilaz





2.ⁿ Aguinduz. Biraoa

Non assumes nomen Domini Dei tui in vanum.

(Ex. XX - 7.)

Zure Jaungoiko Jaunaren izena ez dezu alpefik artuko.



SAN zaidazu, kristaua, *zein da Jaungoikoaren Legeko bigarren agindua?*

E. Jaungoikoaren legeko bigarren agindua auxa da: *Jaungoikoaren izena alperik ez aotan artzea.* (B. K. J.)

Bigarren agindu (mandamentu) onetan lenengoan agindua bere izenari dagokionera zabaltzen du Jaungoikoak.

Norpait maite ba-degu, orfi lotsa aundia ba-diogu, lotsa santu ori ta bere maitetasuna erakusten degu berari edo beraz itzegitean. Bigarren agindu onetan lotsa santu ori ez Berari galtzeko agintzen digu ba.

G. Zer debekatzen du bigarren aginduak?

E. *Jaungoikoaren izena begirune-lotsarik gabe aitatzea, biraoak esatea, ta alperik zin-egitea, debekatzen du bigarren aginduak?*

Iru gixez edo eratara utsegiten da, beraz agindu onetan:

1.ⁿ Begirune-lotsarik gabe Jaungoikoaren izena aitatzeaz (aipatzeaz.)

¿Zer esan nai du begirune-lotsarik gabe Jaungoikoaren izena aitatzeak?

E. Jaungoikoaren izena begirune-lotsa gabe aitatzeak esan nai du izen santu ori edo beste edozein, Jaungoikoari batez ere dagokiona, agoan artzea asafez, ixtaz (burlaz) edo begiramen gutxitxoz, Jesus'en, Maria'ren edo Santuen izena esate baterako. (X-gaŕen Pio).

Jaungoikoaren, Ama-Birjiñaren edo santuen baten izena nolanai, beafik

gabe, arinkeriz edo alako oitura batez aipatzea, ezertarako gabe, uts txikia geienean da.

Jaungoikoaren izena etzazula beti agoan ekafi, eta santuen izenak ez nasi, bestela pekatu (oben) gabe etzera egongo. (Ecli. XXIII - 10). Jaunak ez du erugabetzat aren izena alpefik derabilena begiratuko. (Ex. XX, 7).

Jaungoikoaren izena eta arekin ikusteko aundia duten gauzenak edo norbaitenak beti kontuz artu agoan. Zenbat eta Jaungoikoarekin ikusteko aundiagoa duten oiek ordun eta lotsa aundiagoa bear diegu ekafi. Argatik Jesus'en, Kristo'ren, ostiaren, Ama-Birjiña ta santuen izena edo izenak nolainai aipatzen ez oitu.

G. Birao zer da?

E. Jaungoikoarentzat, Andre Maria'rentzat eta Santuentzat itsuskeriren bat esatea da biraoa, ta, berez, oben izugafia. (B. K. I.)

Biraoa da, beraz, itz itsusia esatea edo Jaungoikoari edo Jesus'eri, edo Kristo gure Jaunari edo baita ere Ama-Birjiña edo edozein santuri.

Biraoa da Jaungoikoaz on eztena esatea, edo Jaungoikoari dagokiona ukatzea. Inork esango ba'lu *Jaungoikoa gaiztoa dala, ez dala Jaungoikoa zuzena* edo onelakoren bat.

Biraoa da esan pafagarizko zakar edozein Jaungoikoari, Santuei edo gauza santuei esatea. Edo baita ere zerpait gaizto aiei nai izatea.

Biraoa da santuen mirari Elizak egizkotzat emanaz edo aiei ematen zaien agurketaz pafegitea.

Biraoa da, erlijioaren kaltez (kontra), gezufa ta zoro-gauza dala edo esatea.

Biraoa da naiz itzik ez esan keñu tzar bat Jaungoikoari, zeruari edo egitea, edo biotzez alako tzarkeria nai izatea. Argatik zion Jesus'ek biraoak biotzetik datoz. (Mat. XV-19).

Birao motak

Biraoa izan diteke *ustekabekoa* ta *oiturezkoa*.

Ustekabekoa, zer esaten duan oartu gabez eta Jaunari lotsa galdu nai etzitzaiolako, noizpait izan liteke utsik gabea, baño nekez; berdin *oiturezkoa*. Baño etzala inork uste izan oitura dualako esatea pekatu txikiagoa dala, oitura uzteko lana arkar egiten duan arte.

Birao gaiztozkoa, gaiztoz esaten duan tzarkeria, esateko gogoz esana. Biotz gaiztoz esana. Au da pekaturik lafiena.

Asarezkoa, beroaldian oartu gabe ateratzen dana. Bat-bateko sualdi izugafiak nasi dualakoz ezpada, pekatu lafia da.

Lagunartekoa, pekatu au egiten du biraolariari pafez, itzez edo keñuz eragiten dionak; ixilduazi al eta bear lukenean ixilduazten ez duanak ere bai.

Pekatu ikaragafia

Jeronimo Santuak dio: «Biraoa baño pekatu ikaragafiagorik ezta, onek bere aoa zeruan jartzen du (ura beztutzeko, ta.)»

Juan Krisostomo Santuak dio: «Biraoa baño gaiztoagorik ezta.»

«Jaungoikoaren kaltezko (kontrako) biraoa baño gaiztakeri txafagorik ezta ezer» dio befiz Bernardino santuak.

Biraoa lapufeta baño pekatu aundiagoa da. Norpait iltzea baño ere pekatu aundiagoa ta nork bere aita iltzea baño aundiagoa. Pekatu oiek lufekoai gaitza ekartzen die, onek befiz Jaungoikoari zuzen egin nai lioke.

Jesus il zutenen pekatua baño aundiagoa da, aiek etzeukatelako Jaungoikotzat, baño auek bai.

Inpernukoak ere eztute ain pekatu aundia egiten biraoa esatean. aiek inondik onik eztutelako ta ezin izan, biraolariak befiz ainbat.

Beti da pekatu lafia oarturik esan ezkeru.

Biraolarien ziorkada

Ofen gaiztakeri aundia ezin gelditu bere ziorkada (castigoa) gabe.

Lebitiko deitzen dan liburu santuan agiri zaigu Jaungoikoak bere efiarentzat emandako legea. «Jaunaren izena biraotzen duana eriotzez ziorkatua izango da; efitafa izan edo landarakoa izan efiak afikatu beza (XXIV-16). Emakume Israeldafaren semeak biraoa esan ondoren Jaunak esan zion Moises'eri: itxipetik (ixtegitik) atera zazu biraolari tzafa; eta Nere kaltezko esan txafa entzun dioten guziak jaso dezatela beren eskua aren gain, aren gaiztakeria gaitzesteko, eta gero efi guziak afikatu beza.» (Lev. X-14).

Elizaren lenengo urtetan biraoa esaten zuanak ufengo zazpi igandez etzuan zilegi elizan sartzea; zazpi ostiralez baru gofia egin bear izaten zuan eta auek egin nai etzitanari ukatzen zitzaizkion Sakramentuak eta iltzean kanposantua ere bai.

Justiniano Efoma'ko Erpuruak (emperadorea) biraolariei bizia kentzea agintzen zuan.

Felipe España'ko efegeak itoazi egiten zituan.

Frantzi'ko efege Luis santuak mingaña burni orituaz zula-razi ta kopeta efe.

Mahoma berak bere *Alcoran*'ean biraolaria puxka-puxka txetutzeko agintzen du.

Latefi Batu (Estados Unidos)'etako legeak ziega edo ixtegi berexia agintzen du biraolarientzat.

España'ño gaurko legeak ogeita bost pezetetatik gorako *multa* (petxa), zerga edo gañerakoan ixtegia agintzen du.

Baño biraolariak lasa dabilte gizonengatik.

Jakin bear dute ordea, beren esan zikiñak ezin dezazkela aztu Jaungoikoak. Ixilik daramazkilako, jotzen ez ditulako, gora jotzen dute. ¡Zorigaiztokoak! Ez dira oartzen, ez orain ta ez gero, aren eskuetatik ezin dutela iges egin.

Intza'r Damaso An. O. M. Cap.



ELUR - MALUTA (1)

Elur-maluta
Jose Deun lora,
Izen polita
Jañi dizuna.

Mutikoena
Ura bai poza,
Elur-maluta
Jauska ikusita.

Eskolarik ez
Txorik eskura,
Betor ugari
Elur-maluta.

Oña ojua
Mutikoena
Dakustenean
Elur-maluta.

Ta pii ituna
Txoritxoena
Dakustenean
Elur txuria.

Ludi onetan
Au da lagia
Batzuen poza
Besten ituna.

*Maruri'tar Eramun A.
Buruñurduna.*

IX - 20 - 1924.

(1) «Gure Hefia»ren txapelketan lenengo saria irabazi du gure A. maite ofen olerki onek.





NIMEN ILERAKO



A. Donosti'k bildua

A. Elduayen'ek ereskidetua

Astiro

Su ta ga - fen ar - te - an e -

fu - ak garbi - tzen Dau - de go - go ga - xu - ak ne -

ga - fez ur - tu - tzen O - yu e - fu - ki ga - fiz da -

gozki - gu dei - tzen Be - ren atse - ka - be - tzaz e-

fu - ki gai - te - zen Be - ren a - tse - ka - be - tzaz e-

Astiro

fu - ki gai - te zen

ANIMEN ILERAKO

1.^a Su ta gafen artean
 eruaq garbitzen
 daude gogo gaxoak
 negafez urtutzen;
 oiu efukigafiz
 dagozkigu deitzen:
 beren atsekabetaz
 efuki gaitezen.

2.^a Adiskideak dira
 an mifiez daudenak,
 luf onetan ain maite
 izan nituanak:

orain nere begira
 daude efukariak,
 atsekabe-mifietan
 gutziz ondatsuak.

3.^a ¿Ez ote zait efukiz
 beteko biotza,
 anima gaxo aien
 negafak entzun-da?
 ¿Ez al det arpegia
 jasoko zerura,
 ilen alde Jaunari
 egiteko otoitza?

Yur'e'tar Julian A.

Padua'ko Antonio Deuna

Antonio Deuna sendi zaindaria.



SENDI (*pamili*) bat ondo danean atsegin, pake ta maitasun gozo-enaz inguraturik bizi oi da. Baño baldin sendi (*pamili*) ofetara bata-bestekiko susmo gaiztoak, asafea, ez beafak saftzen badira, lengo pake, atsegin eta negaf biuftzen dira. Goietan, odeietan ekaitzak, erauntsiak bezela, sendietan (*pamilietan*) ere askotan gutxiena uste danean ezbeaf eta naigabe ekaitzak sortu oi dira. Eta eliza ta etxe aundietan, ekaitz aldietan tximistofatzak jafi oi diran bezela, sendietan (*pamilietan*) ere gaitz eta ezbeafetatik begiratu ditzan zaindari bat ipintzea on-ona da. Eta nor Paduako Antonio Deuna baño begiratzale ta zaindari ohea? Deun gauza afigafi egile onek, gaizki bizi ziran sendiak oneratzearen, *mirari* asko egin izan ditu; eta sendietako gofoto, ez beaf eta naigabeak bere laguntzaz atsegin eta pake gozo biurtu izan dira.

Paduako Antonio Deunak, bere bitartekotza eskatu dioten sendi askoi beafeko zuten pakea, zer jana eskuratzeko lanbidea, osasuna, ta... iritxi die.

Jainkozko etxekoandre ta emazteok, zuen sendiak (*pamiliak*), Paduako Antonio Deunaren ardurapean jafi itzatzute etxeko ezbeaf guztietan berari oles egin, laguntza eskatu ta, aldi guztietan nai litzaken osagafia ezpada ere, naigabeak ondo eramateko eramapena, *pazientzia* emango dizute.

O'tar Ak. O. M. Cap.

1924 - VIII 27'an.

JOXPANTONI ARTZAI



RA zortzi urtetan artzaintzan asi zan aur gaxo bat.

Joxpantoni du izena. Neskaxo argi ta gozoa. Jaunaren doai guziz betea dirudi.

Joxpantoni'ren gurasoak ez dira aberatsak, baño ezta beafak janak ere.

Jaunaren bildur santuan azi dute beren aurtxo ori, baño zafena dalako artzaintzan derabilte.

Naiago zukean berak lagunakin eskolara joan zazpi urtetara ezkerroz, baño ardiak nork zaindu? Aitak soroetan eta amak etxean lanik asko ba-dutela-ta, neskaxoa eskolara gabe gerazten dute.

Ori da oraindik gaitzarik txikiena; makuñena da kristau-ikasbidea (dotriña) ikastera joan bage uztea.

Aur gaxoa, efuki zaitut!

Lengo egunean bere aita topo egin nuan eta esan nion:

—Zure nexka omen da agian, or artzaintzan dabilen ori.

—Bai, jauna, ori det zafena.

—Ta ondo nexkatxo polita.

—Bai, begi argia du, jauna.

—Baño, gaxoa, orain beti bere ardien atzetik, eskolara gabe-ta eztago ondo.

—Bai, lendabizian lagunakin eskolara joan neiez edo aiekin ibili naiez



marmari batzuek ateratzen zizkigun, baño orain oso pozik dabil.

—Ori ezta naikoa ordea; ez aŕentzat eta ez zuretzat. Aŕfak esan didanaz ez omen da ez eskolara ta ez dotriñera joaten-eta.

—Ta  zer nai du, jauna?

—Nai nukena da zure ta bere biarko ona.

—Biarkoaz biar begiratuko degu ta gaur bear egiten dit.

—Aizu, aiskide, ortan oker zaudela esango dizut. Gaur bear luken jana zure aŕfari ukatuko ba-zi nio, biarko janak txalkorturik (bofoturik) utziko luke zure aŕfa ta aŕfa azitzeko gauza ez dela (salbo-ta) lau ankako es-

ne-beafean azi dana bezala zenduke. Au bera gertatzen da aufaren buru ta animarekin ere. Aufari bere garaian ikasi dear luken ikasbidea ukatzen badiozu, naiz eskolako gauzetan eta naiz erlijiokoetan, aur ori gero egiñalak eginda ere, ez da bere onera etoriko ta elduko. Burua gogortzen zaio, gogoa joaten zaio. beste zaletasun batzuek biotza artzen diote ta beaŕenekotarako gauza ez dala jartzen zaizu.

—Egia dio, jauna, baño orain aldian ori gabe...

—Orain artean ori gabe moldatu zeran ezkeroz, di urte geiagoz ezin al zaizke? Zure aur gaxoari eskolara joaten utziko ez padiozu ere dotriña'ra gabe ez utzi beintzat, bestenaz bere ardiak eta bere *beltxa* (txakufa) maite izango ditu, baño ez bere Jaungoikoa, ta bere gurasoak ere ez, dotriñak eraten duan bezala.

PRAXKU

Misiolari Kaputxinoen lana

Sortaldeko Elizkizun-legeko (ritoko) erialdeetan



EGUIĻ edo Abenduaren 9'an Erlaheim'dar Gonzalo Aitak Efoma'n bere Sortaldeko anaïen lanen befi Eleiz-agintarien eskez egindako itzaldian eman zuen.

Sortalde'ko kaputxinoen lana ango efi askotara zabaltzen da.

Eritrea.—Badira 30 urte emen lan egiten dutela Ebanjelioa zabalduz: ogei ta amar miletaraño irixten dira katoliko efitafak, bertan jayotako 63 apaizekin. Geienak iya 26.000 Elizkizun-lege (Rito) kopto'tafekoak.

Toki ontan kaputxinoak egin duten lan afigafia adierazten duan *zine-pelikula* ezin ederaġoa orain Euskaleria barena dabil.

Etiopiaren egoaldean ere 20.000 katoliko bildu dituzte (oyetatik 2.000 zismatikuak izanak) 7 apaiz bertan jayoakin. Bi misio auek, Eritrea ta Gala-efikoak, bertakoak apaiz izateko prestatzeko bi apaizgaitegi edo seminario dituzte. Apaizgai oyetako batzuk Aita kaputxino batek zuzentzen duan *Aita Santuaren Ikastetxe Etiopiaña'n* ikasten Efoma'n ari dira.

Arabia.—Eskutapen edo misterioz betetako basamortu, jende ofon (bate-tik bestera dabilena) maoma'tafen beila edo peregrinazioen lufa lan-leku zabal bezin latza da. Gauza afigafiak egin dituztela esan ditek. Lenengo maġako bi ta bigafen maġako iru eskoletan Maristak 304 aufai erakusten die; monjak 27 nex-

ka ibiltzen diran eskola nagusi bat ta bi umezurtz-etxe (orfanotrofio) 42 aufekin dituzte: katolikoak 907 dira eta katoliko-gaiak (katekumenoak), 6.

Asia txikiena ta Konstantinopla.—Berita ta Smirna'ko Lazio'tafen pafoki-eliza galantak 300 urtetik onera kaputxinoen kontura daude. Siria, Zilizia, Mesopotamia, Kurdistan ta Anatolia, Smirna ta Konstantinopla'ko Misio lekuak Prantzisko santuaren seme bulafdetsuen izerdi ta odolez bustia izan da. Guda edo gefaraño len 88 Aita ta 28 anaiek emen lan egiten zuten; 153 eskolazko sarea 8.173 ikaslekin efi oyetan zabaldurik zegoan. 1.402 ikasle biltzen zituzten 11 ikastetxe nagusiak kaputxinoen ta lan onetan laguntzen zien araudun edo erlijioso batzuen mendeen zeuden. Katolikoen seme-alabak ez ezik, zismatiko ta maoma'tafanak ere eskola oietara juaten dira lufeko ta erlijioako gauzak ikas-tera. Gutxiena 10.000 katoliko kaputxinoak zaitzen dituzte animen janaria emanaz. Gudate edo gefate bitartean ta ondoan Softalde'ko misioak kalte aundiak izan dituzte. Mesopotamia, Anatolia ta Trebisondo'ko kaputxinoen misioetatik onaf negargafi batzuk besterik ez dira gelditu. Misiolariak ezin esan ala neke ta naigabe turkia'tafen ziega edo kartzeletan eraman dute, bat Baabdash'eko Aita Leonardo il egin dute.

Itxaso Jonio'tar ta Ejeo'n.—Edef-garbia da itxaso Jonio'tar ta Ejeo gañeko zerua. Baño ugarte (isla) polit oietan zisma-ri itxasiak dauden ango jendeen artean oso katoliko gutxi daude. Misio-lanan emaitza edo frutuak baño aundiagoak izan oi dira nekeak. Kaputxinoak Leukos, Zefalonia, Naxos, Paros ta Antiparos, Siros ta Kios ugarte edo islatan lan egiten dute. Kandia ugarte aundia ere kaputxinoak bakarik zaitzen dute. Ugartedi edo artxipielago grezi'tafan 12 Aita ta 11 Anai arkitzen dira ta 25 monja. Katolikoak 1000 dira ta zismatikoak 350.000.

(*Osservatore Romano*'tik itzulia)

(Ufengoañazkena)





NEGUKO ELESKIAK



... eriko geltokian arkitzen naiz... Eguraldi euri-tsua, ezuñretaraño sartzen dan ezetasuna dariona.. Treneko leio itxiak luññez beterik dijoaz...

Gizon-emakume-pilatxo bat beren euritakoen azpian geldirik dago. Baseñitar batzuen batzuk motel-motel estaziora dijoaz...

¡Neguko egunak zeñen goibelak diran! Aro ortan adixkiderik aundiena sua izan oi da txoriak kabian egak bilduta egoten diran bezela berotasunaren magalean egoteko.

Andre itxu bat bagoian nere aldamenean datoñ. Euskalduna da... Euskeraz itz egiten entzuten diot...

—Nungoa zera? — Zumañaga aldeko baseñi batekoa, Jauna.— Eztet gogoratzen zeñ baseñikoa esan zidan.

— Itxua zera, ematen duanez?— Bai, Jauna, itxua naiz aspalditik. Orañ izan naiz Donostian oculistakin; bañan... eztago sendatzerik...

— ¡Jaunak pazientzia emango al dizu! Ori eskatzen diot. Bai, Berak nai duana egin dedila...

Bere iloba batekin dijoa eta iloba onek dio etxeko bazterak berak baño obeto ezagutzen ditula, ganadu-txerriak gobernatzen ditula eta oculistak sendatzeko esperantza eman diola.

¡Gorputzeko begiak itxuak zituan andretxo onek; bañan anima-koak argiak!

Oleartso A. O. M. Cap.





URTEROKO ALATZ EDO MILAGROA.

Ezaguna da Jenaro santuaren egunean Jaungoikoak bere odolarekin egiten dun milagroa. Santu onek ixuri zuen odola ontzitzo batean gordetzen dute. Odol au urte guzian gogofututa egoten da, baña bere eguna etofitzen danean ta ontzitzo ori bere buru ondoan jaftzen dutenean, urtu ta goritu egiten da. Aurten ere au bera gertatu da. Gotzaien afean ta goizeko amafetan ontzitzoan odola irakiten asi da ta urtutzen. Jendeak pozez negar egiten zuten ta bertan zeuden ingles asko oso afiturik gelditu ziran.

Ordu berean afitzeko gauza gertatu zan Pozzuoli'n, Jenaro santuari bizitza kendu ziotenean, afi baten gañean jafi zuen bere burua. Oraindik gordetzen da afi ori, bere gañean artu zituen odol tantoakin. Napoles'en santuaren odola urtu zan ordu berean, odol tanto oyeke ere gofitu egin ziran.

TOLOSA'TIK.

Zuzendari maitea: Eri ontako befi batzuk bialtzen dizkizut, *Zeruko Argia'ren* irakufleak pozik irakufiko dituztelako ustean.

¡Bai jai edefak emen Tolosa'n ikusi ditugunak Agoñaren 28'an! Goizetik eliz guztietan — ta asko dira Tolosa'n — apaizak ta praiñak itz-egin digute mixio ta mixiolarien alde, esan dizkigute beren lanak ta nekeak, nola izan gaitezken guziok mixiolariak, gure etxetatik atera gahe, an ufuti lanean dabilztan mixiolariantzat al deguna emanaz.

Amafetan meza nagusia, erdi pontifikala deitzen dutena; Mokoroa jaunaren meza kantatu zan ta ¿zein edefki! guziok afituta gelditu giñan ikusi gendunean nola erantzuten zien efiak koruko kantoreai.

Atsaldeko iru t'erditan atera zan aufen prozesioa ta ikustekoak zeuden Tolosa'ko umeak, batzuek Txina'ko jazkera eramanaz, besteak aingeruenak, praiñe monja ta santuenak; guztien atzetik gure gotzai edo obispo jauna.

Bostetan Mayora'tar Wenceslao jaunak itzaldia egin zigun mixio-gaiaz euskeraz ta linterna bidez erakutsi zizkigun mixiolariak dabilztan lekuak, ango oiturak, ango lanak, ango kristauak ta onela gauza asko.

Seyetan beste itzaldia egin zuen Climent jaunak Langiñe katolikoen etxean. Tolosa'n ta inguruko efietan bota dan azia, ez da beñepein alpefikakoa izan; ala diote mixiotarako bildu diran 10.000 pesetak.

Beste befi bat. Atsegiñ aundia izan da guretzat mixiotako pelikula edef bat ikustea; pozik ikusi izan da, erakutsi dan efi guztietan. Bertan ikusi degu edefki, misiolari kaputxinoak Afrika'n egiten duten lana; azkenean agertu zaizkigu Aita Santuarekin, andik Efomara ikastera etofitzen diran gaztetxoak.

EZ DIRA ILAK NOLANAI IBILI BEAR.

Merry del Val izena dun Kardenalak egun batzuk egin ditu Padua'n, Egun oyetan mendi gora egin ditun ibilaldietan bere biotz edefa erakutsi du. Egun

batean azkenengo gefatean an ildako gudari baten ezur utsak arkitu zituen. Il zanean, lur azalean jafi zuten nunbait ta gero euriyak lur aforu ta agirian utzi. Ezufakin batean gurutze tziki bat afkitu zuen. Guda denborako fresna asko gelditu dira, an da emen sakabanatuta. Atxuf bat artu ta lurperatu zituen befiz Kardenalak, ama batek egingo zuen maitasun beraz. Lur lorez estali ta gurutzea jafi ondoren, menditik jetxi zan berekin atxufa eramanaz.

MONJAK ZERTARAKO?

Washington deritzaion urian oroigai edo monumentoa egin zaye 1861' ko gefatean gudariak laguntzen ibili ziran monjai. Guda artan amabi ordenetako monja ibili ziran gudariak laguntzen ta ofegatik oroigai ofen gañean amabi monjen irudiak jafi dituzte, ordena bakoitzatik bat. Oroigai ontan izki edo letra oyek ikusten dira: "*Oyek bizkortzen zituzten iltzeko zeudenak, oyek sendatzen zituzten zaurituak, oyek laguntzen zieten etsayak arapatutakoai, oyek egañi zeudenai edaten ematen zieten.*" Oroigai onek, Washington' go toki edefenetakoan jafita, bere ondotik igarotzen diran guziai erakutsiko die aldi bat geyagoz, monjak ez daudela alpefik mundu ontan.

IKASI DEZAGUN.

Latefi Elkaftuetanl (Estados Unidos) katolikoak daukaten asteroko edefena etxe befira aldatu da. Hartford'ko Katedralaren ondoan egin duten etxe oftarako 800.000 dollar bildu beaf izan dituzte. Asterokoa ateratzeko erosi duten makina befiak egin ditzake ordu batean 16 ofialdeko 25.000 izpafingi. Aldamenean beste bi etxe egin ditu, bat ikastetxeak jartzeko ta bestea Katedralako anaidi edo kongregazioentzat.

BASATIAK NUN, AN EDO EMEN?

Gotzai prantzetaf bat mixiotatik etofi ta Paris'era eldu zanean, gizon abetrats aundiki batek bere etxera bazkalizera eraman zuen.

Bazkari ondoan ta beste gela edef batean maikideak eraman zizkion, agufegin zizayoten. Jakifia, emakume askok gaurko sofieko lotsagabeak zeramazkiten. Au ikusita, zef esan etzekiela, gelditu zan etxeko andrea.

Jauna, esan zion azkenean gotzaiari, damutzen naiz onelako emakume ariñen artera zu ekafitzeaz.

Andrea, erantzun zion gotzaiak, lasai egon zaitezke, oitua nago ta: *amañ urte egin ditut mixiotan basatien artean.*

EUSKALERI'TIK

Gipuzkoa'ko Asis'tar Prantzisko santuaren Irugafendañak beila edo peregrinazio ikusgafia egin dute Oyartzun'era. Goizeko zortzietako Mezan *bedertzireun* eta geiago Irugafendañak Jauna artu zuten. Meza nagusirako mila ta geiago Irugafendar ba-ziran an bilduan. Oyartzun'dar Jose M.^a Aita Kaputxinoak egin zien itzaldi zoragafia. Afatsalderako oraindik askoz Irugafendar geiago bildu ziran eta Donostia'r Ladislao A. Kaputxinoak egin zien itzaldi ondoren eliz inguru edo procesio eder-edefa egin zuen. Azkenean Ondañabi'ko A. Nagusi Donosti'ar Gabriel'ek lau itz sutsu esan zizkien eta Aita Santuaren bedeinkazio belauniko artu zuten.